

## GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Erregina berorren gorentasuna Reina Sofía ospitaleko ordezkari batzuekin bildu da

*Kutz kontseilariak Sofía erreginak 1986an inauguratutako zentroaren jarduera biltzen duen txosten bat eman dio*

Lunes, 28 de marzo de 2011

Erregina berorren gorentasunak Reina Sofía ospitaleko ordezkari batzuekin bildu da gaur arratsaldean. Erreginak 1986ko otsailaren 20an inauguratu zuen osasun-zentroa. Orduko hura Errege Etxeko kide batek Nafarroara egindako lehenengo bisita instituzionala izan zen. María Kutz Osasun kontseilaria ordezkariaren buru izan da eta Erreginari ospitaleko historia eta 25 urte hauetako jarduera biltzen dituen txostena eman dio, baita inaugurazio-ekitaldiko zenbait irudi ere.



Sofía erregina, Tuterako ospitaleko ordezkariarekin

Kutz kontseilariak gain, Erregina berorren gorentasunarekin bildu dira Isabel Martín Osasun zuzendari nagusia, Miguel Ángel Gil Tuterako Osasun Barrutiko zuzendaria, eta langileen ordezkari hauek: María del Coro Alonso (erizaintza), Luis Fernando Pérez (zerbitzu orokorrak), Ana Beamonte (osasun arlokoak ez diren langileak), Mariano Hernández (Barrutiko Lehen mailako Arreta), Patrocinio Chueca, José Javier Catalán (medikuak) eta Enrique Martín de Marco (Emakumea Artatzeko Arloa).

Tuterako Reina Sofía ospitaleak Tuterako eta eskualdeko 21 herritako 97.527 biztanleri osasun-laguntza eskaintzen die. 657 langile ditu, eta 133 mediku eta 19 mediku egoiliar. Gaur egun 161 ospitaleratze-ohere ditu, eta horiei beste 20 gehitu behar zaizkie zerbitzu hori etxean eskaintzeko. 2010ean 53.979 larrialdi artatu zituen eta 8.463 ospitaleratze egin ziren, eta batez besteko egonaldia 5 egunekoa izan zen. Azken hamarkadan, Reina Sofía ospitalearen jarduerak gora egin du nabarmen, zerbitzu berriak abian jarri baitira, hala nola Unitate Onkologikoa (2002), Etxeko Ospitaleratze Zerbitzua (2006), eta gaixo akutuen Ospitaleratze Psikiatrikoaren Unitatea (2008).

25 urte hauetan, ospitalean 18.323 haur jaio dira eta 3.000 pertsonak baino gehiagok lan egin dute, hala nola medikuek, erizaintzako langileek, teknikariek, laguntzaileek, zaindarek eta administrazioko eta zerbitzu orokorretako langileek.